



Etzi taldea - Ingumarket proiektua

Balorezko Proposamena

Ingumarket proiektua app edo webgune batean datza. Bertan, erosi edo erabili nahi den produktu edota zerbitzua bila daiteke, eta berauek kontsumitu edo erabili ahal izateko aukera ematen duten Euskal Herriko enpresak aurkezten dira. Aldi berean, enpresa hauek eskaintzen dutenaren inguruko informazioa eta beraiekin harremanetan jartzeko aukera (webgunea duten kasuan, bertara sarbidea, edo helbidea eta erosketa ziurragoa izateko aukera emango zaie erosleei beraien iruzkinak edo eta esperientziak uzteko, besteak beste) eskuragarri izango da. Bestalde, webgunea ez duten enpresa horiei, guk geuk bat sortzeko eta martxan jartzeko aukera emango diegu. Horretaz gain, webguneak “eko” filtroa izango du, eta horren esker, produktu ekologikoak aurkitu eta kontsumitzea izugarri erraztuko da. Izan ere, filtro horren bidez, produktu edo zerbitzu hori eskaintzen duten enpresa ekologikoak eta jasangarriak aurkeztuko dira. Beraz, “kilometro 0” bizimoduaz eta inizatibaz guztiz bat dator.

Har dezagun gaur egun ezaguna den multinazional bat *Ingumarket*-ekin alderatzeko. Esaterako, *Amazon* plataforma digitala da, eta webgune bertan mundu osoko produktuak erosteko aukera ematen du. *Ingumarket*-en, berriz, produktuak zuzenean erosi beharrean, horiek saltzen dituzten enpresen inguruko informazioa eta kontaktua eskaintzen da. Horrela, erosketa egiteko orduan, oinarrizko enpresara jotzen da, ondorioz, informazioa fidagarriagoa izateaz gain, kutsadura nabarmen murrizten da; izan ere, produktua ekoizten denetik zure etxera iritsi arte egiten duen bidea laburragoa da. Horretaz gain, proiektu hau Euskal Herriko enpresetara mugatzen da, bertako ekonomia sustatzeko asmoz.

Ez hori bakarrik, pertsoneri bertako enpresetara jotzen laguntzea ez ezik, *Ingumarket* -en bidez, enpresa euskaldunek ere bezero gehiago izatea bultzatuko da, enpresen garapenean lagunduz. Hots, balorezko proposamena kualitatiboa da.